# Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

# Boletín Oficial de Gipuzkoa

2007ko irailak 21 ostirala
186 Zenbakia

Viernes 21 de septiembre de 2007
Número 186


## LABURPENA — SUMARIO


| | Orrialdea |
|---|---|
| 3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak. | 24.909 |
| 4 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa...... | 24.912 |
| 7 Udal Administrazioa.................................... | 25.051 |

| | Página |
|---|---|
| 3 Disposiciones Generales del T.H. de Gipuzkoa.......... | 24.909 |
| 4 Administración del T.H. de Gipuzkoa.................... | 24.912 |
| 7 Administración Municipal .............................. | 25.051 |


## 3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK 3

## DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*Irailaren 11ko 115/2007 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lanpostu Zerrendaren aldaketa onartzeari buruzkoa.*

*Akatsen zuzenketa*

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAren 181zk.an, irailaren 14koan, argitaratutako foru dekretu horretan akatsak daudenez, ondorengo eran zuzendu behar dira.

### DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

*DECRETO FORAL 115/2007, de 11 de setiembre, por el que se aprueba la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

*Corrección de errores*

Advertidos errores en la publicación del Decreto Foral de referencia, que figura en el ejemplar n.º 181, de 14 de setiembre de 2007, de este BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, se procede a su rectificación en los siguientes términos:

**- 24.447.** *orrialdean, honako hau dioen tokian:*

Egoera berria:

Sortu diren lanpostuak:

| *Identifikazioa* | | | | | | | | | | | *Eskatutako betebeharrak* | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Egitura* | *LK* | *Izena* | *DG* | *LM* | *PS* | *LZ* | *DM* | *DO* | *O. BEREZIA* | *ADM* | *ST* | *E* | *AZP* | *Titul.* | *Beteb. bereziak* | *HE* | *DZ* | *Der. Data* | *Oharrak* |
| 08 2001 | 1543 | ET KUDEAKETA | 1 | E | L | 69 | 1 | 20 | 13.804,00 | GFA | B | | | 400 | | 3 | 1 | 2007/01/01 | (1) |
| 08 2001 | 1542 | GOBERNATZAILEORDEA | 1 | E | L | 30 | 1 | 15 | 12.149,15 | GFA | D | | | 200 | | 2 | 1 | 2007/01/01 | (1) |
| Dotazioak Guztira: 2 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

*(1) Behin-Behineko balorazioa*

- *Honako hau esan behar du:*

| *Identifikazioa* | | | | | | | | | | | *Eskatutako betebeharrak* | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Egitura* | *LK* | *Izena* | *DG* | *LM* | *PS* | *LZ* | *DM* | *DO* | *O. BEREZIA* | *ADM* | *ST* | *E* | *AZP* | *Titul.* | *Beteb. bereziak* | *HE* | *DZ* | *Der. Data* | *Oharrak* |
| 08 2001 | 1543 | ET KUDEAKETA | 1 | E | L | 69 | 1 | 20 | 13.804,00 | GFA | B | | | 431 | B-GIDATZEKO BAIMENA | 3 | 1 | 2007/01/01 | (1) |
| 08 2001 | 1542 | GOBERNATZAILEORDEA | 1 | E | L | 30 | 1 | 15 | 12.149,15 | GFA | D | | | 200 | | 2 | 1 | 2007/01/01 | (1) |
| Dotazioak Guztira: 2 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

*(1) Behin-Behineko balorazioa*

- **24.448.** *orrialdean, honako hau dioen tokian:*

| | | | |
|---|---|---|---|
| 04 1002.33 | BB BEZ-A, ERAENTZA OROKORRA<br>JNG DE IVA RÉGIMEN ESPECIAL | **19** | **14.466,50** |

- *Honako hau esan behar du:*

| | | | |
|---|---|---|---|
| 04 1002.33 | BB BEZ-A, ERAENTZA BEREZIA<br>JNG DE IVA RÉGIMEN ESPECIAL | **19** | **14.466,50** |

- **24.449.** *orrialdean, honako hau dioen tokian:*

| | | | |
|---|---|---|---|
| 03 1003. 636 | AB UDAL KUDEAK. TEKNIKOA<br>JCS GESTIÓN TÉCNICA MUNICIPAL | **25** | **29.639,11** |

- *Honako hau esan behar du:*

| | | | |
|---|---|---|---|
| 03 1003. 636 | AB UDAL KUDEAK. TEKNIKOA<br>JSC GESTIÓN TÉCNICA MUNICIPAL | **25** | **29.639,11** |

- *En la página* **24.447**, *donde dice:*

Nueva situación:

Se crean:

| *Identificación* | | | | | | | | | | | *Requisitos exigidos* | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Estruct.* | *CP* | *Denominación* | *TD* | *TP* | *SP* | *CT* | *DE* | *CD* | *C. ESPECIF* | *ADM* | *GC* | *E* | *SUB* | *Título* | *Requisitos Específicos* | *PL* | *ND* | *Fecha Preceptiv.* | *Observaciones* |
| 08 2001 | 1543 | TM GESTIÓN | 1 | N | C | 69 | 1 | 20 | 13.804,00 | DFG | B | | | 400 | | 3 | 1 | 01/01/2007 | (1) |
| 08 2001 | 1542 | SUBGOBERNANTE | 1 | N | C | 30 | 1 | 15 | 12.149,15 | DFG | D | | | 200 | | 2 | 1 | 01/01/2007 | (1) |
| Total Dotaciones: 2 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

*(1) Valoración provisional*

*- Debe decir:*

| *Identificación* | | | | | | | | | | | *Requisitos exigidos* | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Estruct.* | *CP* | *Denominación* | *TD* | *TP* | *SP* | *CT* | *DE* | *CD* | *C. ESPECIF* | | *ADM* | *GC* | *E* | *SUB* | *Título* | *Requisitos Específicos* | *PL* | *ND* | *Fecha Preceptiv.* | *Observaciones* |
| 08 2001 | 1543 | TM GESTIÓN | 1 | N | C | 69 | 1 | 20 | 13.804,00 | | DFG | B | | | 431 | CARNET CONDUCIR-B- | 3 | 1 | 01/01/2007 | (1) |
| 08 2001 | 1542 | SUBGOBERNANTE | 1 | N | C | 30 | 1 | 15 | 12.149,15 | | DFG | D | | | 200 | | 2 | 1 | 01/01/2007 | (1) |
| Total Dotaciones: 2 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

*(1) Valoración provisional*

*- En la página* **24.448**, *donde dice:*

| | | | |
|---|---|---|---|
| 04 1002.33 | BB BEZ-A, ERAENTZA OROKORRA<br>JNG DE IVA RÉGIMEN ESPECIAL | **19** | **14.466,50** |

*- Debe decir:*

| | | | |
|---|---|---|---|
| 04 1002.33 | BB BEZ-A, ERAENTZA BEREZIA<br>JNG DE IVA RÉGIMEN ESPECIAL | **19** | **14.466,50** |

*- En la página* **24.449**, *donde dice:*

| | | | |
|---|---|---|---|
| 03 1003. 636 | AB UDAL KUDEAK. TEKNIKOA<br>JCS GESTIÓN TÉCNICA MUNICIPAL | **25** | **29.639,11** |

*- Debe decir:*

| | | | |
|---|---|---|---|
| 03 1003. 636 | AB UDAL KUDEAK. TEKNIKOA<br>JSC GESTIÓN TÉCNICA MUNICIPAL | **25** | **29.639,11** |

Donostia, 2007ko irailaren 19a.

(9931) (10315)

Donostia-San Sebastián, a 19 de setiembre de 2007.

(9931) (10315)

# 4 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACION DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA 4

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

LABURPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2007ko uztailaren 17ko bileran hartutako erabakien laburpena, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 69. eta 72. artikuluetan erabakitakoari jarraituz bestelako xedapen eta ebazpenak argitaratzea alde batera utzi gabe:

— Onartzea honako proiektu honen likidazioa: Eibar-Gasteiz autobidearen Arrasate Iparra-Bergara hegoa zatiko hegoaldeko azpizatia egiteko proiektuaren 1. Proiektu osagarria, GI-627 errepidea bikoiztekoa Epeleko lotunearen eta Kaskonategiko biribilgunearen artean.

— Jasota uztea GI-2133 errepideko 13,650 eta 18,675 k.p.en arteko zoruaren egitura birgaitzeko Proiektuko obrak hartutzat eman zirela

— Jasota uztea A-8 autobideko Donostiako saihesbidearen Behobia-Irun noranzkoaren 22,900 k.p.ko Aieteko tunela egokitu eta iragazkaizteko Proiektuko obrak hartutzat eman zirela.

— Ontzat ematea Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresak aurkeztutako azterlana eta aurrekontua, N-634 errepidearen Zumaiako saihesbidea egiteko proiektuari buruzko obrek atxikitako argindar lineak aldatzeko.

— Onartzea GI-3391 Errepideko 1,670 eta 1,760 k.p.en artean, lerradura izandako ezponda egonkortzeko proiektua.

— Baimena ematea eta xedatzea 417.960,07 euro, GI-2635 errepidearen Landeta eta Zapatari biribilguneen arteko saihesbidea egiteko proiektuko lur-zatien planoko 4 zk. finkaren balio justu gisa (Azpeitiko saihesbidearen 1. fasearen zatia).

— Diputatuen Kontseiluaren 2007ko maiatzaren 15eko Erabakiaren gauzatzea eteteko eskaera ez onartzea, gerora errekurtsoa ez onartzea gerta daitekeen arren. Erabaki horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Debagoieneko, Debabarreneko, San Markoseko, Sasietako, Urola Erdiko, Urola Kostako eta Tolosaldeko mankomunitateen arteko lankidetza hitzarmenari behin-betiko onarpena ematen zaio Gipuzkoako Zaborren Partzuergoa eratzeko, eta baita partzuergo horren estatutuei ere.

Donostia, 2007ko irailaren 17a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia.

(9932) (10322)

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

EXTRACTO

De los acuerdos adoptados por el Consejo de Diputados de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión del 17 de julio de 2007 sin perjuicio de la publicación de otras disposiciones y resoluciones conforme a lo que disponen los artículos 69 y 72 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

— Aprobar la liquidación de las obras del Proyecto Complementario n.º 1 del de Construcción de la autopista Vitoria-Gasteiz-Eibar. Tramo: Arrasate Norte-Bergara Sur. Subtramo Sur. Desdoblamiento de la GI-627 entre el enlace de Epele y la glorieta de Kaskonategi.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de Rehabilitación estructural del firme de la GI-2133 entre los p.k. 13,650 y 18,675.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de acondicionamiento e impermeabilización del túnel de Aiete situado en el p.k. 22,900 de la A-8, sentido Behobia-Irun.

— Prestar conformidad al estudio y presupuesto presentado por Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. para la modificación de las líneas eléctricas afectadas por las obras del Proyecto de construcción de la variante de Zumaia en la N-634.

— Aprobar el Proyecto de estabilización de deslizamiento entre los p.k. 1,670 y 1,760 de la GI-3391.

— Autorizar y disponer la cantidad de 417.960,07 € en concepto de justiprecio de la finca n.º 4 del parcelario del Proyecto de construcción de la variante de la carretera GI-2635 entre la rotonda de Landeta y la rotonda de Zapatari (1.ª etapa parcial de la variante de Azpeitia).

— Desestimar la solicitud de suspensión de la ejecución del acuerdo de este Consejo de Diputados de fecha 15.05.2007, por el que se aprobaron definitivamente el Convenio de colaboración entre esta Diputación Foral de Gipuzkoa y las Mancomunidades de Debagoiena, Debabarrena, San Marcos, Sasieta, Urola-Erdia, Urola-Kosta y Tolosaldea para la constitución del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y los Estatutos del Consorcio, con independencia de la posible futura inadmisión del recurso.

Donostia-San Sebastián, a 17 de setiembre de 2007.—El diputado general, Markel Olano Arrese.

(9932) (10322)

LABURPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2007ko uztailaren 24ko bileran hartutako erabakien laburpena, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 69. eta 72. artikuluetan erabakitakoari jarraituz bestelako xedapen eta ebazpenak argitaratzea alde batera utzi gabe:

EXTRACTO

De los acuerdos adoptados por el Consejo de Diputados de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión del 24 de julio de 2007 sin perjuicio de la publicación de otras disposiciones y resoluciones conforme a lo que disponen los artículos 69 y 72 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

— Jasota uztea GI-2620 errepidearen Arrasate Mendebaldeko saihesbidea egiteko proiektua idazteko laguntza kontratua hartutzat eman zela.

— Onartzea eta ezestea N-634 errepidearen Zarauzko saihesbidearen trazatu proiektuak (Galtza baserria, Buztinzuri pabilioia eta Jauregi eraikina) atxikitako ondasun eta eskubideen zerrenda partziala jendaurrean erakusteko tramitean aurkeztutako alegazioak.

— Aldatzea Gipuzkoako B eremuko (Mendebaldea) eskualdearteko eta herriarteko sareetako errepideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko zerbitzu kontratua; aldaketak 2007ko uztailaren 26tik aurrera izango ditu ondorioak.

— Aldatzea Gipuzkoako A eremuko (Ekialdea) eskualdearteko eta herriarteko sareetako errepideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko zerbitzu kontratua; aldaketak 2007ko abuztuaren 6tik aurrera izango ditu ondorioak.

— Jasota uztea GI-3381 errepideko zorua egokitzeko proiektuko obrak hartutzat eman zirela.

— Onartzea ondorengo proiektu obren likidazioa: Gasteiz-Eibar autobidearen Bergara Iparra-Eibar zatia (B fasea) egiteko proiektuaren 5. proiektu osagarriaren (Angiozarko lubeta) 1. proiektu aldatua.

— Jasota uztea ondorengo proiektuko obren harrera egin zela: GI-2637 errepidearen Zegamako Aitamarren eremuaren saihesbide zatia egiteko proiektua.

— Baimena ematea honako proiektu hau aldatzeko espedientea hasteko: GI-3630 errepideko 4,905 eta 9,035 k.p.en arteko zoruaren egitura birgaitzea.

— Onartzea Aiako saneamendu Proiektua.

— Jasota uztea Orioko ur biltegia Proiektuko obren harrera egin zela.

— Jasota uztea Aizarnazabalgo ur hornidura Proiektuko lanen harrera egin zela.

— Onartzea Putzuetako depositua handitzea Proiektuko 2. Proiektu Aldatuko obren kitapena.

— Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak eta M.ª Soledad Martín Cáceres andereak sinatuko duten lankidetza hitzarmena, Tolosa Naturaldia Tolosako natura jardunaldiak antolatu eta garatzeko.

Donostia, 2007ko irailaren 17a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia.

(9933) (10323)

LABURPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2007ko abuztuaren 2ko bileran hartutako erabakien laburpena, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 69. eta 72. artikuluetan erabakitakoari jarraituz bestelako xedapen eta ebazpenak argitaratzea alde batera utzi gabe:

— Tomar constancia de la recepción de los trabajos del contrato de asistencia para la Redacción del Proyecto de construcción de la variante oeste de Arrasate de la carretera GI-2620.

— Estimar y desestimar determinadas alegaciones presentadas en el trámite de información pública de la relación parcial de bienes y derechos afectados por el Proyecto de trazado de la variante de la carretea N-634 en Zarautz (Caserío Galtza, Pabellón Buztinzuri y Edificio Jauregi).

— Modificar con efectos a partir del día 26 de julio de 2007, el contrato de servicios para la ejecución de labores de conservación y explotación de las carreteras de la red comarcal y de las redes locales de la zona B (Mendebalde) del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Modificar con efectos a partir del día 6 de agosto de 2007, el contrato de servicios para la ejecución de labores de conservación y explotación de las carreteras de la red comarcal y de las redes locales de la zona A (Ekialde) del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de acondicionamiento del firme en la GI-3381.

— Aprobar la liquidación de las obras del Proyecto Modificado n.º 1 del Proyecto Complementario n.º 5 del Proyecto de construcción de la autopista Vitoria/Gasteiz-Eibar. Tramo: Bergara Norte-Eibar. Fase B. Terraplén de Angiozar.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de vial de Aitamarren en la carretera GI-2637 en Zegama.

— Autorizar la iniciación del expediente de modificación del Proyecto de Rehabilitación estructural del firme de la GI-3630 entre los p.k. 4,905 y 9,035.

— Aprobar el Proyecto de Saneamiento de Aia.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de Depósito de Orio.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de abastecimiento de agua a Aizarnazabal.

— Aprobar la liquidación de las obras del Proyecto modificado n.º 2 del Proyecto de ampliación del Depósito de Putzueta.

— Aprobar el convenio de colaboración a suscribir con Dña. M.ª Soledad Martín Cáceres para la organización y desarrollo de las jornadas de naturaleza de Tolosa-Tolosa-Naturaldia.

Donostia-San Sebastián, a 17 de setiembre de 2007.—El diputado general, Markel Olano Arrese.

(9933) (10323)

EXTRACTO

De los acuerdos adoptados por el Consejo de Diputados de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión del 2 de agosto de 2007 sin perjuicio de la publicación de otras disposiciones y resoluciones conforme a lo que disponen los artículos 69 y 72 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

— Luzatzea beste bi urte kiroletako eskualde bulegoetan arreta zerbitzuak kudeatzeko Kirol Management SL enpresarekin sinatutako kontratua, 2007ko irailaren 1etik aurrera.

— Kontratazio espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea, prozedura ireki eta tramitazio arrunteko lehiaketa bidez, bidaien kudeaketarako zerbitzu kontratua esleitzeko.

— Onartzea eta enkantera ateratzea N-I errepidearen Pasaiako saihesbidea bukatzeko proiektuaren 3. proiektu osagarria.

— Onartzea eta enkantera ateratzea GI-631 errepideko 32,650 eta 34,420 k.p.en arteko bidezoruaren egitura birgaitzeko proiektua.

— Ezestea aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoa, Diputatuen Kontseiluak, 2007-3-20an, GI-2632 errepidearen Zumarraga ekialdeko lotunetik Urretxu-Legazpiko lotunerainoko saihesbide zatia egiteko proiektua onartzeko emandako erabakiaren kontra jarritakoa.

— Onartzea eta enkantera ateratzea Behobian (Irun), N-121-A errepidean, Mendipe biribilguneko ezponda egonkortzeko proiektua.

— Onartzea GI-131 errepidearen Donostiatik Hernanirainoko saihesbidearen Donostia-Martutene zatia egiteko proiektuaren 1. proiektu aldatua.

— Jasota uztea ondorengo proiektuko obren harrera egin zela: GI-2632 errepideko 30,330-30,620 eta GI-3230 errepideko 5,745-6,400 k.p.en arteko zoruaren egitura berritzeko proiektua.

— Jasota uztea ondorengo proiektuko obren harrera egin zela: Oiartzunen, GI-2132 eta GI-3631 errepideen arteko bidegurutzean, Arizmendiko biribilgunea egiteko proiektuaren 1. proiektu aldatua.

— Enkantera ateratzea GI-2637 errepidea Kortaberriako bidegurutzetik Zegamaraino zabaldu eta hobetzeko proiektua idazteko laguntza kontratua.

— Jasota uztea ondorengo kontratuko lanen harrera egin zela: Bergarako Urteaga kalean luizia izandako ezponda egonkortzeko 2. fasearen proiektuko obrak zuzentzeko laguntza teknikoa.

— Baimena ematea N-634 errepidearen Zumaiako saihesbidea egiteko proiektua aldatzeko espedientea hasteko.

— Onartzea GI-3630 errepideko 4,905 eta 9,035 k.p.en arteko bidezoruaren egitura birgaitzeko proiektuaren proiektu aldatua.

— Jasota uztea Aizarna eta Akuako (Zestoa) ur hornidura Proiektuaren 1. Proiektu Aldatuko lanen harrera egin zela.

— Babesik gabeko edota arriskuan dauden haurren egoerak antzeman, aztertu eta aurre egitea helburu dituen «Haur eta Nerabeen Zonako Taldeen» proiektua gauzatzeko aholkularitza eta laguntza emateko Arbutz Elkartearekin 2006-07-14an izenpetutako kontratuaren prezioa berrikustea.

Donostia, 2007ko irailaren 17a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia.

(9934) (10324)

— Prorrogar el contrato de servicios de atención de las oficinas comarcales de deportes, del que es adjudicataria la empresa Kirol Management, S.L., por el plazo de dos años, contados desde el 1.09.2007.

— Aprobar el expediente de contratación y disponer la apertura del procedimiento de adjudicación, por el procedimiento abierto, en forma de concurso y tramitación ordinaria, del contrato de servicio de gestión de viajes.

— Aprobar y licitar el Proyecto complementario n.º 3 del Proyecto de terminación de las obras de construcción de la carretera N-I en Pasaia.

— Aprobar y licitar el Proyecto de rehabilitación estructural del firme de la GI-631 entre los p.k. 32,650 y 34,420.

— Desestimar el recurso de reposición interpuesto contra acuerdo de este Consejo de Diputados de fecha 20.03.07, por el que se aprobó el Proyecto de construcción de la variante de la GI-632. Tramo: Enlace de Zumarraga Este-Enlace de Urretxu/Legazpi.

— Aprobar y licitar el Proyecto de estabilización del talud de la rotonda de Mendipe en la carretera N-121A en Behobia (Irun).

— Aprobar el Proyecto modificado n.º 1 del Proyecto de construcción de variante de la carretera GI-131 desde Donostia-San Sebastián a Hernani. Tramo: Donostia-San Sebastián a Martutene.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de rehabilitación estructural del firme de la GI-2632 entre los p.k. 30,330 y 30,620 y de la GI-3230 entre los p.k. 5,745 y 6,400.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto modificado n.º 1 del Proyecto de construcción de la glorieta de Arizmendi en la intersección de la GI-2132 con la GI-3631 en Oiartzun.

— Licitar la contratación de la Asistencia para la redacción del Proyecto de construcción del ensanche y mejora de la carretera GI-2637 desde el cruce de Kortaberria hasta Zegama.

— Tomar constancia de la recepción del contrato de Asistencia técnica para la dirección de obra del Proyecto de estabilización de deslizamiento en la calle Urteaga de Bergara. Fase 2.

— Autorizar la iniciación del expediente de modificación del Proyecto de construcción de la variante de Zumaia en la N-634.

— Aprobar el Proyecto modificado del Proyecto de rehabilitación estructural del firme de la GI-3630 entre los p.k. 4,905 y 9,035.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto modificado n.º 1 del Proyecto de abastecimiento de agua a Aizarna y Akua (Zestoa).

— Efectuar la revisión del precio del contrato formalizado el 14.07.2006 con la Asociación Arbutz, para la prestación de consultoría y asistencia en la ejecución del proyecto de Equipos Zonales de Infancia y Adolescencia para la detección, evaluación y atención de situaciones de riesgo o desprotección infantil.

Donostia-San Sebastián, a 17 de setiembre de 2007.—El diputado general, Markel Olano Arrese.

(9934) (10324)

## KIROLETAKO ETA KANPO EKINTZAKO DEPARTAMENTUA

*Iragarkia*

Departamentuko foru diputatuak ondoko foru agindua eman du gaur:

Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, 5 h) artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru-organoei dagokie, zeini bere lurralde-esparruan, lurraldeko kirol-federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe.

Alde horretatik, 25.1 h) artikuluan xedatutakoaren arabera, kirol federazioek, eskuordez, burutzen duten administrazio-egiteko publikoetako bat da bere estatutuak eta araudiak onartzea, eta egiteko hori, ikusi dugunez, eskumena duen tutoretza Administrazioak kontrolatzen du. Kontrol hori, besteak beste, gauzatzen da administrazioak dagokion onespena emanez federazioen estatutuei eta araudiei, aipatutako 14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, 29.2 artikuluan jasotzen duen moduan: «Lurralde-federazioen estatutuak, bai eta estatutuotan izan litezkeen aldaketak ere, dagokion lurralde historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira dagokion administrazioak onartu eta gero».

2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak, Euskal Herriko kirol federazioei buruzkoak, gai horren inguruan aipatutako 14/1998 Legea garatzen duenak, berriz ere azpimarratzen du federazioen estatutuen onarpenaren gaia. Horrela, bada, xedapen arauemailearen 65. artikuluak, «Estatutuen administrazio onarpena, argitalpena eta indarraldia» izenekoak, lurralde federazioen estatutuetako arauei dagokienez, ondorengoa xedatzen du:

«2. Lurralde federazioen estatutuak foru aldundiko dagokion organoari aurkeztuko zaizkio, onar ditzan, hirurogei egun naturaleko epean, federazioko batzar nagusian onartzen diren unetik zenbatzen hasita.

3. Estatutu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroak eskatzen duen euskarri informatikoan.

4. Eskumena duen organoak estatutuen gaineko dagokion ebazpena emango du bi hilabeteko epean, eskaera erregistroan sartzen den unetik zenbatzen hasita.

6. Lurralde federazioen estatutuak nahiz horien aldaketak dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira, behin administrazioaren aldetik onartu direnean.

7. Federazio estatutuak indarrean sartzeko, onartu egin beharko dira, eta dagokion aldizkari ofizialean osorik argitaratu beharko dira. Estatutu horiek argitaratu eta hurrengo egunetik egongo dira indarrean, bai federatuentzat, bai hirugarren pertsona eta erakundeentzat».

Bestetik, 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 dekretu horretako 70.1 artikuluak honakoa xedatzen du: «Estatutuak onartu eta aldatu ahal izateko, beharrezkoa da horretarako deitutako Batzar Nagusira bertaratzen diren kideen bi herenek horren aldeko botoa ematea».

## DEPARTAMENTO DE DEPORTES Y ACCION EXTERIOR

*Anuncio*

El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

El artículo 5 h) de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco, establece que corresponde a los órganos forales de los territorios históricos, en su respectivo ámbito territorial la competencia de aprobación de las federaciones deportivas territoriales, así como su asistencia, financiación, intervención y control para garantizar el cumplimiento de sus funciones públicas, sin menoscabo de su actividad privada.

En este sentido, el artículo 25.1 h) del mencionado texto legal dispone que una de las funciones públicas de carácter administrativo que ejercen, por delegación, las federaciones deportivas es la aprobación de sus estatutos y reglamentos, función que, según hemos visto, está sometida al control de la Administración de tutela competente. Este control se manifiesta, entre otros modos, mediante la preceptiva aprobación administrativa de los estatutos y reglamentos federativos, tal como recoge el artículo 29.2 de la ya citada Ley 14/1998, de 11 de junio, cuando señala que: «los estatutos de las federaciones territoriales, así como sus modificaciones, se publicarán, una vez aprobados administrativamente, en el Boletín Oficial del correspondiente territorio histórico».

El Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las federaciones deportivas del País Vasco, que desarrolla en esta materia la Ley 14/1998, de 11 de junio, abunda, como no podía ser de otra manera, en la cuestión de la aprobación de los estatutos federativos. Así, el artículo 65 de la disposición reglamentaria, titulado «Aprobación administrativa, publicación y vigencia de los estatutos», en lo que se refiere a las normas estatutarias de las federaciones territoriales establece:

«2. Los estatutos de las federaciones territoriales se presentarán para su aprobación en el órgano de la correspondiente Diputación Foral en el plazo de sesenta días naturales a partir de su aprobación por la asamblea general federativa.

3. Dichos estatutos deberán presentarse en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en el soporte informático que sea requerido por el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

4. El órgano competente procederá a dictar la Resolución correspondiente respecto de los estatutos en el plazo de dos meses a contar desde la fecha en que la solicitud haya tenido entrada en el registro.

6. Los estatutos de las federaciones territoriales, así como sus modificaciones, se publicarán, una vez aprobados administrativamente, en el Boletín Oficial del correspondiente Territorio Histórico.

7. La vigencia de los estatutos federativos estará vinculada a su aprobación y posterior publicación íntegra en el boletín oficial correspondiente. Dichos estatutos producirán efectos desde el día siguiente al de dicha publicación tanto para las y los federados como para las terceras personas y entidades».

Por su parte, el artículo 70.1 de ese mismo Decreto 16/2006, de 31 de enero, dispone que «Para la aprobación y modificación de los estatutos será preciso el voto favorable de los 2/3 de los asistentes a la asamblea general convocada al efecto».

Dekretu horretako lehenengo xedapen iragankorrak honako hau dio, hitzez hitz:

«1. Kirol federazioek dekretu honetan xedatutakoarekin bat etortzeko egokituko dituzte euren estatutuak eta arautegiak. Horretarako, urtebeteko epea izango dute, dekretua indarrean sartzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitu baino lehen, estatutu eta arautegi berriak dagokion kirol administrazioari aurkeztuko dizkiote, hark onar ditzan.

2. Aipatutako egokitzapena gauzatu bitartean, kirol federazioek 14/1998 Legean eta dekretu honetan xedatutakoaren arabera eta euren estatutuetan eta arautegietan –aipatu legeari eta dekretu honi aurka egiten ez dietenean– xedatutakoaren arabera jardungo dute».

Aurreko agindu horiek betez, Gipuzkoako Judo Federazioak 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren arabera egokitutako estatutuak aurkeztu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuan, adierazitako federazioak 2007ko ekainaren 19ko batzar orokorrean aipatu dekretuko 70.1 artikuluan eskatutako quorumaz onartutakoak.

Kiroletako Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aurkeztu diren estatutuak aztertu ondoren, kirol federazioei buruzko araudia betetzen dutela erabaki dute eta administrazio onespena ematea proposatu dute.

Horiek horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde antolaketa, gobernu eta administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40.2 f) artikuluan esleitu dion eskumenaz baliatuta, ondorengoa

EBATZI DU

*Lehenengo:* Onartzea Gipuzkoako Judo Federazioaren estatutuak, 2007ko ekainaren 19ko batzar orokorrean onartutakoak eta foru agindu honen eranskin gisa jasota daudenak.

*Bigarren:* Onartutako estatutuak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara daitezen agintzea.

*Hirugarren:* Onartutako estatutuen bi kopia bidaltzea Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzara, Euskal Herriko Kirol Entitateen Erregistroan inskribatzeko.

*Laugarren:* Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Hori argitaratzen da guztiek jakin dezaten.

Donostia, 2007ko irailaren 10a.—Ramón Martiarena Bergaretxe, idazkari teknikoa.

(287) (10289)

La disposición transitoria primera del mencionado decreto dice textualmente:

«1. Las federaciones deportivas adaptarán sus estatutos y reglamentos a lo previsto en el presente Decreto en el plazo de un año a contar desde el día siguiente al de su entrada en vigor. Antes de finalizar este plazo, presentarán los nuevos estatutos y reglamentos ante la Administración deportiva correspondiente para su aprobación.

2. Mientras no se efectúe la adaptación señalada, las federaciones deportivas se regirán por lo que establece la Ley 14/1998, el presente Decreto y por sus estatutos y reglamentos en aquello que no contradiga la citada Ley y el presente Decreto».

En cumplimiento de los preceptos citados, la Federación Guipuzcoana de Judo y D.A. ha presentado ante este Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa los estatutos adaptados al Decreto 16/2006, de 31 de enero, aprobados por su asamblea general, en sesión de fecha 19 de junio de 2007, con el quórum exigido en el artículo 70.1 de esa disposición reglamentaria.

Analizados los estatutos presentados por los técnicos adscritos a la Dirección General de Deportes, han considerado que los mismos se ajustan a la vigente normativa sobre federaciones deportivas y han propuesto su aprobación administrativa.

En su virtud, este diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el ejercicio de la competencia atribuida por el artículo 40.2 f) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa,

RESUELVE

*Primero:* Aprobar los estatutos de la Federación Guipuzcoana de Judo y D.A., aprobados por su asamblea general en sesión de fecha 19 de junio de 2007, que se acompañan como anexo a la presente orden foral.

*Segundo:* Ordenar la publicación de los estatutos aprobados en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Tercero:* Remitir dos copias de los estatutos aprobados a la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco, a los efectos de su inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

*Cuarto:* La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer contra la misma recurso contencioso–administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia - San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime pertinente.

No obstante, los particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Donostia-San Sebastián, a 10 de setiembre de 2007.—El secretario técnico, Ramón Martiarena Bergaretxe.

(287) (10289)

## GIPUZKOAKO JUDEO ETA KIROL ELKARTUEN FEDERAZIOAREN ESTATUTUAK

### I. IZENBURUA

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioa irabazi asmorik ez duen entitatea da. Nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena du, eta kirolari, kirol elkarte, talde, teknikari eta epaileak biltzen ditu bere baitan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan JUDO modalitatea praktikatzeko eta sustatzeko.

Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak ondorengo diziplina hauek hartuko ditu beregan:

a) Judoa.

b) Jiu Jitsua.

c) Aikidoa.

d) Wushua.

e) Kendoa.

f) Norberaren defentsa.

*2. artikulua.*

Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak lege-arau hauek ditu gidari: 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko kirolarena; 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua, Euskadiko kirol federazioena; Legea garatzen duten gainerako xedapenak; estatutu hauek; berariaz prestatutako araudiak; eta bere organoek baliotasunez hartutako erabakiak.

*3. artikulua.*

Helbide honetan du egoitza Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak: Anoeta pasealekua 5, Donostia, pk 20014 (Gipuzkoa).

*4. artikulua.*

Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Judo jarduera eta lehiaketa ofizialak eta, kasuan kasu, modalitate horretan antolatzen edo zehazten diren diziplinak sustatu, bultzatu, baimendu, antolatu eta zuzentzen ditu, bai eta jolas izaerako kirol praktika ere.

*5. artikulua.*

Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioa Euskadiko Judo eta Kirol Elkartuen Federazioko kide da.

Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak bere modalitateari dagokion Gipuzkoako kirol federatua ordezkatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan.

*6. artikulua.*

Bere helburuak lortzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskuordetu dizkion administrazio izaerako zeregin publikoez gainera (urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 14. artikuluan agertzen da zerrenda), publiko ez diren eginkizun hauek beteko ditu Federazioak:

a) Lehiaz kanpoko kirol jarduera federatua antolatzea bere lurralde eremuan, kirol modalitate horretako diziplina guztiak bere baitan hartuta.

b) Judo eta Kirol Elkartuen modalitateko ordezkaria izatea EAE mailan, eta estamentu guztien parte hartzea bideratzea euskal lehiaketetan

## ESTATUTOS DE LA FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE JUDO Y DEPORTES ASOCIADOS

### TÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

La Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. es la entidad privada sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica y capacidad de obrar, que reúne a deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces, clubes, agrupaciones deportivas y otras entidades para la práctica, promoción y organización de la modalidad de Judo en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. tendrá integradas las siguientes disciplinas:

a) Judo.

b) Jiu Jitsu.

c) Aikido.

d) Wushu.

e) Kendo.

f) Defensa Personal.

*Artículo 2.*

La Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. se rige por la Ley 14/1998 de 11 de junio, del Deporte del País Vasco; así como por el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de Federaciones Deportivas del País Vasco, y demás disposiciones de desarrollo de la Ley; por los presentes Estatutos y reglamentos específicos y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos propios.

*Artículo 3.*

La Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. tiene su domicilio en, Paseo de Anoeta 5 de Donostia-San Sebastián, C.P. 20014 (Gipuzkoa).

*Artículo 4.*

La Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. impulsa, califica, autoriza, ordena y organiza las actividades y competiciones oficiales de la modalidad deportiva de Judo en sus diversas disciplinas, así como promociona la practica deportiva de carácter recreativo.

*Artículo 5.*

La Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. está integrada en la Federación Vasca de Judo y D. A.

La Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. ostenta la representación del deporte federado Guipuzcoano correspondiente a su modalidad en el ámbito autonómico.

*Artículo 6.*

Para el cumplimiento de sus fines la Federación, además de las funciones públicas de carácter administrativo que ostenta por delegación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y cuya relación es la que figura en el artículo 14 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, ejercerá las siguientes funciones que serán, por tanto, no públicas:

a) Organizar la actividad deportiva federada no competicional en su ámbito territorial, abarcando a todas las disciplinas de su modalidad deportiva.

b) Ostentar la representación de su modalidad deportiva en el ámbito autonómico de instrumentar la participación de todos sus estamentos en las competiciones vascas.

c) Bere jarduera aurrera eramaterakoan sortzen diren kirol gatazken berri jakitea eta haiek ebaztea, organo judizialen eta arbitralen eskumenaren kaltetan izan gabe.

d) Bere araudiak betetzen direla zaindu eta federazioaren organoek behar bezala hartutako erabakiak betearaztea.

e) Euskadiko Federazioarekin lankidetzan aritzea, honek hala eskatzen duenean, 16/2006 Dekretuaren 5. artikuluak ezarritakoaren arabera, modalitate honetako teknikari eta epaileen prestakuntzari dagokionez.

f) Bere diru baliabideak zertarako erabili eta nola banatu erabakitzea; bere jarduera aurrera eramateko beste erakunde batzuek eskualdatzen dizkioten baliabideak kudeatzea, eta bere baliabide guztiak zuzen erabiltzen direla zaintzea.

g) EAEko administrazioekin batera elkarlanean aritzea kirola bultzatzeko bere helburuak betetzerakoan, eta bereziki, indarrean dagoen legeak federazioei zuzenean ematen dizkien lankidetza eta aholkularitza eginkizunetan.

h) Gipuzkoako lurralde historikoan, bere kirol-modalitatean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den neurrian, bermatzea.

i) Eta, oro har, bere kirol-modalitatean aritzea bultzatzeko eta hobetzeko egokia den guztia xedatzea bere lurralde eremuan.

*7. artikulua.*

Publiko ez diren eginkizun horiek ez dute administrazio izaerarik, federazioa erakunde pribatua baita; beraz, aurka egiteko, berrikusteko edo baliogabetzeko, ohiko jurisdikzio zibilean estutu beharko da, edo auziak ebazteko sistema arbitralera jo beharko da.

*8. artikulua.*

Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak administrazio izaerako zeregin publiko hauek ere izango ditu, legeak eskuordetu dizkiolako:

a) Lehiaketa ofizialak kalifikatu, antolatu eta baimentzea Gipuzkoako lurralde historikoan.

b) Federazioaren lizentziak bideratzea.

c) Kirol diziplinako ahalmena erabiltzea bere lurralde eremuan.

d) Kirol Diziplinaren Euskal Komitearen ebazpenak betearaztea.

e) Bere estatutuak eta araudiak onartzea.

f) Euskadiko Federazioarekin batera lan egitea, 16/2006 Dekretuaren 5. artikuluak ezarritakoaren arabera, debekatuta dauden botika gaiak eta kirolean arauz kanpokoak diren metodoak erabil ez daitezen aurre neurriak hartzen, erabilera horiek ikuskatzen eta zigortzen, berariaz ezarriko den araudiaren arabera.

g) Eskumena duen administrazio publikoarekin parte-hartzea eta lankidetzan aritzea bere kirol programen garapenean, batez ere eskola kirolekoetan, gizonezko eta emakumezkoen berdintasuna sustatzen duten programetan, eta herri erakundeak antolatzen dituen guztien intereseko programetan.

h) Federazioaren hauteskunde prozesuak zaintzea.

c) Conocer y resolver los conflictos que se originen en el desarrollo y práctica de su modalidad deportiva, sin perjuicio de las competencias que, en su caso, ostenten los órganos disciplinarios, judiciales o los tribunales arbitrales.

d) Velar por el cumplimiento de sus normas reglamentarias y la ejecución de los acuerdos validamente adoptados por los órganos federativos.

e) Colaborar con la federación vasca, a petición de esta, según los principios del artículo 5 del Decreto 16/2006, en la formación de los técnicos y árbitros de esta modalidad.

f) Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades o instituciones para el desarrollo de su actividad, controlando la correcta aplicación de los mismos.

g) Colaborar con las administraciones públicas del País Vasco en el cumplimiento de sus funciones de promoción deportiva y, en particular, ejercer las competencias de cooperación y asesoramiento a las mismas que las normas vigentes atribuyen directamente a las federaciones.

h) Promover y garantizar en lo posible la igualdad entre mujeres y hombres en la práctica de su modalidad deportiva e el territorio histórico de Gipuzkoa.

i) En general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora de la práctica deportiva de su modalidad en su ámbito territorial.

*Artículo 7.*

El ejercicio de estas funciones no públicas no tiene carácter administrativo dada la condición de entidad privada de esta federación, por lo que su posible impugnación, revisión ó anulación deberá instarse ante la jurisdicción civil ordinaria, o recurrir al sistema arbitral de resolución de conflictos.

*Artículo 8.*

La federación Guipuzcoana de Judo y D. A. ejerce igualmente por delegación legal las siguientes funciones públicas de carácter administrativo:

a) La calificación, ordenación, organización y autorización de las competiciones oficiales en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

b) La tramitación de las licencias federativas.

c) El ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva en su ámbito funcional y territorial.

d) La ejecución de las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

e) La aprobación de sus estatutos y reglamentos.

f) Colaborar con la federación vasca, a solicitud de ésta, cumpliendo con los principios rectores del artículo 5 del Decreto 16/2006, en la prevención, control, y represión del dopaje, conforme a la normativa que al efecto sea aplicable.

g) La participación y colaboración con la administración pública competente en el desarrollo de sus programas deportivos, en especial los de deporte escolar, los de promoción de la igualdad entre hombres y mujeres y aquellos programas de interés general que organice la autoridad pública.

h) El control de los procesos electorales federativos.

*9. artikulua.*

Aurreko artikuluan jasotako eginkizun publikoak betetzean onartzen diren egintza eta erabakien aurka gorako helegitea jarri ahal izango da Gipuzkoako Foru Aldundian kirol gaien ardura duen organoan, eta administrazio prozedura komunak arautzen dituzten araudietan oinarrituko da.

*10. artikulua.*

Federazio honek inola ere ezingo ditu eginkizun publikoak eskuordetu Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimenik gabe.

*11. artikulua.*

Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak hirugarren pertsonen esku utzi ahal izango ditu, eraginkortasun arrazoiengatik, eta berak gauzatzeko eta antolatzeko baliabide egokirik ez duenean, eginkizunen publikoekin lotutako jarduera material, tekniko eta zerbitzuak; baina enkargu horrek inola ere ez du esan nahiko eginkizun publiko hori eman edo eskuordetu egin denik.

*12. artikulua.*

Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak bere eginkizunak gauzatuko ditu Euskadiko Judo eta Kirol Elkartuen Federazioarekin eta, behar izanez gero, haren barne dauden beste lurralde federazioekin elkarlanean.

Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioa lankidetzan ariko da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta lankidetza hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu harekin, helburu, kirol programa, aurrekontu eta eskuordetutako gainerako eginkizun publikoekin zuzeneko lotura duten gaiak zehazte aldera. Hitzarmen horiek izaera juridiko-administratiboa izango dute. Era berean, Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak kontratu programak izenpetu ahal izango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, gutxienez honakoak barne direla: Programen finantzazio aurreikuspenak, lortu beharreko helburu zehatzak edo zenbatu litezkeenak, bai eta helburu horiek ebaluatzeko edo ikuskatzeko mekanismoak.

*13. artikulua.*

Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioaren barruan ez da utziko inori bereizkeriarik egiten arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritzi eta sinesmenengatik, edota beste edozein egoera pertsonal nahiz sozialengatik

## II. IZENBURUA

## FEDERAZIOKO KIDE EGITEA. LIZENTZIAK

*14. artikulua.*

1. Federazio lizentzia agiri pertsonala eta besterenezina da, bere titularrari, pertsona fisikoa edo juridikoa izan, Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioko kide izaera ematen dio, eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitzen du; betiere, lehiaketa bakoitzean diren arauei jarraituz.

2. Federazio lizentzia bakarra izango da EAE osoan, eta, horren bidez, titularra kirol modalitate bateko bai Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioari bai Euskadiko Federazioari atxikita egongo da.

3. Pertsona fisikoak eta juridikoak kirol federazioetako kide egiteko bidea dagokien lizentzia ematea izango da.

*Artículo 9.*

Los actos y acuerdos adoptados en el ejercicio de las funciones públicas relacionadas en el artículo anterior serán susceptibles de recurso de alzada ante el órgano de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de deporte y se ajustarán a los principios inspiradores de las normas reguladoras del procedimiento administrativo común.

*Artículo 10.*

En ningún caso esta federación podrá delegar el ejercicio de las funciones públicas sin la autorización correspondiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Artículo 11.*

La federación guipuzcoana de Judo y D. A. podrá encomendar a terceras personas actuaciones de carácter material, técnico o de servicios relativas al ejercicio de las funciones públicas delegadas por razones de eficacia y cuando no se posea los medios técnicos y organizativos adecuados para su desempeño, pero esta encomienda no supondrá en ningún caso cesión o delegación de la función pública objeto de la misma.

*Artículo 12.*

La Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. desarrollará sus funciones en coordinación con la Federación Vasca de Judo y D. A. y, en su caso, con las otras Federaciones territoriales integradas en la vasca.

La Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. colaborará con la Diputación Foral de Gipuzkoa y podrá suscribir con la misma convenios de colaboración al objeto de determinar los objetivos, programas deportivos, presupuestos y demás aspectos directamente relacionados con las funciones públicas delegadas. Tales convenios tendrán naturaleza jurídico-administrativa. Igualmente la Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. podrá suscribir con la Diputación Foral de Gipuzkoa contratos-programa en los que se incluirán, como mínimo, las previsiones de financiación de aquellas, los objetivos concretos o cuantificables a alcanzar así como los mecanismos para evaluación y auditoría de dichos objetivos.

*Artículo 13.*

En el seno de la Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. no se permitirá discriminación alguna por razón de raza, sexo, religión, opiniones y creencias, o cualquier otra circunstancia personal o social.

## TÍTULO II

## INTEGRACIÓN FEDERATIVA. LICENCIAS

*Artículo 14.*

1. La licencia federativa es el documento de carácter personal e intransferible que otorga a su titular, persona física o jurídica, la condición de miembro de la Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. y le habilita para participar en sus competiciones oficiales, siempre con arreglo a las reglas que en cada caso rijan las mismas.

2. La licencia federativa será única en todo el País Vasco y supondrá la doble adscripción de su titular a la Federación Guipuzcoana de Judo y D. A. y a la Federación Vasca.

3. La integración simultánea en ambas federaciones se produce mediante la obtención de la correspondiente licencia.

4. Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak adostasunez, aisialdiko edo zerbitzuetako txartela sortu ahal izango du, ofiziala izango ez dena eta borondatezko harpidetza izango duena. Txartel horrek ez du titularra dagokion federazioko kide egingo, eta ofizialak ez diren kirol jarduera batzuetan parte hartzea edo zerbitzu jakin batzuk jasotzea baino ez du ahalbidetuko.

*15. artikulua.*

El Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las federaciones deportivas del País Vasco, que desarrolla en esta materia la Ley 14/1998, de 11 de junio, abunda, como no podía ser de otra manera, en la cuestión de la aprobación de los estatutos federativos. Así, el artículo 65 de la disposición reglamentaria, titulado «Aprobación administrativa, publicación y vigencia de los estatutos», en lo que se refiere a las normas estatutarias de las federaciones territoriales establece:

«2. Los estatutos de las federaciones territoriales se presentarán para su aprobación en el órgano de la correspondiente Diputación Foral en el plazo de sesenta días naturales a partir de su aprobación por la asamblea general federativa.

3. Dichos estatutos deberán presentarse en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en el soporte informático que sea requerido por el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

4. El órgano competente procederá a dictar la Resolución correspondiente respecto de los estatutos en el plazo de dos meses a contar desde la fecha en que la solicitud haya tenido entrada en el registro.

6. Los estatutos de las federaciones territoriales, así como sus modificaciones, se publicarán, una vez aprobados administrativamente, en el Boletín Oficial del correspondiente Territorio Histórico.

7. La vigencia de los estatutos federativos estará vinculada a su aprobación y posterior publicación íntegra en el boletín oficial correspondiente. Dichos estatutos producirán efectos desde el día siguiente al de dicha publicación tanto para las y los federados como para las terceras personas y entidades».

Por su parte, el artículo 70.1 de ese mismo Decreto 16/2006, de 31 de enero, dispone que «Para la aprobación y modificación de los estatutos será preciso el voto favorable de los 2/3 de los asistentes a la asamblea general convocada al efecto».

Dekretu horretako lehenengo xedapen iragankorrak honako hau dio, hitzez hitz:

«1. Kirol federazioek dekretu honetan xedatutakoarekin bat etortzeko egokituko dituzte euren estatutuak eta arautegiak. Horretarako, urtebeteko epea izango dute, dekretua indarrean sartzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitu baino lehen, estatutu eta arautegi berriak dagokion kirol administrazioari aurkeztuko dizkiote, hark onar ditzan.

2. Aipatutako egokitzapena gauzatu bitartean, kirol federazioek 14/1998 Legean eta dekretu honetan xedatutakoaren arabera eta euren estatutuetan eta arautegietan –aipatu legeari eta dekretu honi aurka egiten ez dietenean– xedatutakoaren arabera jardungo dute».

Aurreko agindu horiek betez, Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak lehengo Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuan aurkeztu ditu 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren arabera egokitutako estatutuak, adierazitako federazioak 2006ko azaroaren 20ko batzar orokorrean aipatu dekretuko 70.1 artikuluan eskatutako quorumaz onartutakoak.

Kiroletako Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aurkeztu diren estatutuak aztertu ondoren, kirol federazioei buruzko araudia betetzen dutela erabaki dute eta administrazio onespena ematea proposatu dute.

Horiek horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde antolaketa, gobernu eta administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40.2 f) artikuluan esleitu dion eskumenaz baliatuta, ondorengoa

EBATZI DU

*Lehenengo:* Onartzea Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioaren estatutuak, 2006ko azaroaren 20ko batzar orokorrean onartutakoak eta foru agindu honen eranskin gisa jasota daudenak.

*Bigarren:* Onartutako estatutuak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara daitezen agintzea.

*Hirugarren:* Onartutako estatutuen bi kopia bidaltzea Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzara, Euskal Herriko Kirol Entitateen Erregistroan inskribatzeko.

*Laugarren:* Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Denek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2007ko irailaren 11.—Ramón Martiarena Bergaretxe, idazkari teknikoa.

(287) (10291)

La disposición transitoria primera del mencionado decreto dice textualmente:

«1. Las federaciones deportivas adaptarán sus estatutos y reglamentos a lo previsto en el presente Decreto en el plazo de un año a contar desde el día siguiente al de su entrada en vigor. Antes de finalizar este plazo, presentarán los nuevos estatutos y reglamentos ante la Administración deportiva correspondiente para su aprobación.

2. Mientras no se efectúe la adaptación señalada, las federaciones deportivas se regirán por lo que establece la Ley 14/1998, el presente Decreto y por sus estatutos y reglamentos en aquello que no contradiga la citada Ley y el presente Decreto».

En cumplimiento de los preceptos citados, la Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting ha presentado ante el anterior Departamento para las Relaciones Sociales e Institucionales de la Diputación Foral de Gipuzkoa los estatutos adaptados al Decreto 16/2006, de 31 de enero, aprobados por su asamblea general, en sesión de fecha 20 de noviembre de 2006, con el quórum exigido en el artículo 70.1 de esa disposición reglamentaria.

Analizados los estatutos presentados por los técnicos adscritos a la Dirección General de Deportes, han considerado que los mismos se ajustan a la vigente normativa sobre federaciones deportivas y han propuesto su aprobación administrativa.

En su virtud, este diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el ejercicio de la competencia atribuida por el artículo 40.2 f) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa,

RESUELVE

*Primero:* Aprobar los estatutos de la Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting, aprobados por su asamblea general en sesión de fecha 20 de noviembre de 2006, que se acompañan como anexo a la presente orden foral.

*Segundo:* Ordenar la publicación de los estatutos aprobados en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Tercero:* Remitir dos copias de los estatutos aprobados a la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco, a los efectos de su inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

*Cuarto:* La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer contra la misma recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime pertinente.

No obstante, los particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento

Donostia-San Sebastián, a 11 de setiembre de 2007.—El secretario técnico, Ramón Martiarena Bergaretxe.

(287) (10291)

## GIPUZKOAKO ARRANTZA ETA KASTING FEDERAZIOKO ESTATUTUAK

### I. IZENBURUA

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioa irabazi asmorik ez duen entitatea da. Nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena du, eta kirolari, kirol elkarte, teknikari eta epaileak biltzen ditu bere baitan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Arrantza eta Kasting ren modalitate desberdinak praktikatzeko eta sustatzeko.

Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak ondorengo diziplina hauek izango ditu integratuta:

a) Itsasoa: Itsasoa Kosta Arrantzaldia: Itsasoa Kosta «Corcho»; Ainguratutako Ontzia; Itsasoa «Currican».

b) Ur geza: Izokinak- Eulia; Izokinak- Arrantzaldi Arina; Zizareak; Ziprinidoak.

c) Kasting.

d) Eta sor daitezkeen beste diziplina batzuk.

*2. artikulua.*

Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak lege-arau hauek ditu gidari: 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko kirolarena; 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua, Euskadiko kirol federazioena; Legea garatzen duten gainerako xedapenak; estatutu hauek; berariaz prestatutako araudiak; eta bere organoek baliotasunez hartutako erabakiak.

*3. artikulua.*

Helbide honetan du egoitza Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak: Anoetako Pasealekua 5, 20014 Donostia (Gipuzkoa).

*4. artikulua.*

Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Arrantza eta Kasting. jarduera eta lehiaketa ofizialak eta, kasuan kasu, modalitate horretan antolatzen edo zehazten diren diziplinak sustatu, bultzatu, baimendu, antolatu eta zuzentzen ditu, Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioari dagozkion eskumenen nahiz Gipuzkoatik kanpo gauzatu ditzakeen jardueren kaltetan izan gabe.

*5. artikulua.*

Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioa Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioko kide da.

Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak bere modalitateari dagokion Gipuzkoako kirol federatua ordezkatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan.

*6. artikulua.*

Bere helburuak lortzeko, eginkizun hauek beteko ditu Federazioak:

a) Kirol jarduera federatua antolatzea bere lurralde eremuan.

b) Arrantza eta Kasting kirol-modalitateko lehiaketa ofizialak eta jarduerak antolatzea Gipuzkoako lurralde historikoan.

c) Parte hartzeko eta lehiatzeko bere arauak ezartzea, nahiz eta behar denean lurralde eremu zabalagoko federazioek emandako arauak ere bete beharko dituen.

## ESTATUTOS DE LA FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE PESCA Y CASTING

### TÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting. es la entidad privada sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica y capacidad de obrar, que reúne a deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces, clubes, agrupaciones deportivas y otras entidades para la práctica, promoción y organización de la modalidad de Pesca y Casting en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting tendrá integradas las siguientes disciplinas:

a) Marítima: Mar Costa Lanzado; Mar Costa Corcho; Embarcación Fondeada; Mar Curricán.

b) Continental: Salmónidos Mosca; Salmónidos Lance Ligero; Lombriz; Ciprínidos.

c) Casting.

d) Y otras disciplinas de pesca deportiva que pudieran surgir.

*Artículo 2.*

La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting se rige por la Ley 14/1998 de 11 de junio, del Deporte del País Vasco; así como por el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de Federaciones Deportivas del País Vasco, y demás disposiciones de desarrollo de la Ley; por los presentes Estatutos y reglamentos específicos y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos propios.

*Artículo 3.*

La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting tiene su domicilio en, Paseo de Anoeta n.º 29, local n.º 5 de Donostia-San Sebastián, C.P. 20014, (Gipuzkoa).

*Artículo 4.*

La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting impulsa, califica, autoriza, ordena y organiza las actividades y competiciones oficiales de la modalidad deportiva de Pesca y Casting en su caso, las disciplinas de dicha modalidad que se configuren o definan en el ámbito territorial de Gipuzkoa, sin perjuicio de las competencias que son propias de la Federación Vasca de Pesca y Casting ni de las actividades que pueda realizar fuera de Gipuzkoa.

*Artículo 5.*

La Federación Guipuzcoana de La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting está integrada en la Federación Vasca de Pesca y Casting.

La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting ostenta la representación del deporte federado Guipuzcoano correspondiente a su modalidad en el ámbito autonómico.

*Artículo 6.*

Para el cumplimiento de sus fines la Federación ejercerá las siguientes funciones:

a) Organizar la actividad deportiva federada en el ámbito territorial de Gipuzkoa.

b) Organizar competiciones oficiales y actividades de la modalidad deportiva de Pesca y Casting en el ámbito de Gipuzkoa.

c) Establecer sus propias normas de participación y competición, sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito territorial superior.

d) Arrantza eta Kasting modalitateko ordezkaria izatea EAE mailan.

e) Federazioaren Arrantza eta Kasting baimenak tramitatzea, gero Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioak baimen horiek eman ditzan, azken horrek ezarritako betebeharrei eta prozedurari jarraiki.

f) Bere jarduera aurrera eramaterakoan sortzen diren kirol gatazken berri jakitea eta haiek ebaztea, organo judizialen eta arbitralen eskumenaren kaltetan izan gabe.

g) Bere arauak betearaztea eta diziplinako ahalmena haien arabera erabiltzea.

h) Euskadiko Arrantza eta Kasting. Federazioarekin batera lan egitea debekatuta dauden botika gaiak eta multzoak eta kirolean arauz kanpokoak diren metodoak erabil ez daitezen aurre neurriak hartzen, erabilera horiek ikuskatzen eta zigortzen, berariaz ezarriko den araudiaren arabera.

i) Arrantza eta Kasting kirol-modalitateko teknikariak eta epaileak prestatzen laguntzea, helburu horrekin xedatutakoa araudiaren arabera.

j) Bere diru baliabideak zertarako erabili eta nola banatu erabakitzea; bere jarduera aurrera eramateko beste erakunde batzuek eskualdatzen dizkioten baliabideak kudeatzea, eta bere baliabide guztiak zuzen erabiltzen direla zaintzea.

k) Kide dituen klub eta taldeei agian emango dizkien dirulaguntzak izendatzea eta kontrolatzea.

l) EAEko administrazioekin batera elkarlanean aritzea kirola bultzatzeko bere helburuak betetzerakoan, eta bereziki, 14/1998 Legeak federazioei zuzenean ematen dizkien lankidetza eta aholkularitza eginkizunetan.

m) Kirolari buruzko bere estatutuak eta araudiak prestatzea.

n) Dagokion lurralde-eremuan eta bere kirol-modalitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den neurrian, bermatzea.

o) Eta, oro har, bere kirol-modalitatean aritzea bultzatzeko eta hobetzeko egokia den guztia xedatzea.

*7. artikulua.*

Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioarekin eta, hala dagokionean, Euskadiko Federazioan integratutako beste federazioekin koordinatuta beteko ditu bere eginkizunak.

Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan jardungo da eta lankidetzahitzarmenak sinatu ahal izango dira bien artean, helburuak, kirol programak, aurrekontuak eta eskuordetutako funtzio publikoekin zerikusi zuzena duten gainerako alderdiak zehazteko xedez. Hitzarmen horien izaera juridiko-administratiboa izango da. Era berean, Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak kontratu-programak sinatu ahal izango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin; horietan, gutxienez, programak finantzatzeko aurreikuspenak, lortu beharreko helburu zehatzak edo kuantifikagarriak eta helburu horiek ebaluatzeko eta ikuskatzeko mekanismoak adierazi beharko dira.

*8. artikulua.*

Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioaren barruan ez da utziko inori bereizkeriarik egiten arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritzi eta sinesmenengatik, edota beste edozein egoera pertsonal nahiz sozialengatik.

d) Ostentar la representación de la modalidad de de Pesca y Casting en el ámbito del País Vasco.

e) Tramitar las licencias federativas de de Pesca y Casting, para su expedición por la Federación Vasca de de Pesca y Casting conforme a los requisitos y procedimientos establecidos por ésta.

f) Conocer y resolver los conflictos deportivos que se originen en el desarrollo de su actividad, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales.

g) Velar por el cumplimiento de sus normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas.

h) Colaborar con la Federación Vasca de de Pesca y Casting. en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine.

i) Colaborar en la formación de las y los técnicos y jueces de la modalidad deportiva de de Pesca y Casting conforme a la normativa que al efecto se determine.

j) Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos sus recursos.

k) Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones que pudiera conceder a los clubes y agrupaciones deportivas adscritas a ella.

l) Colaborar con las administraciones del País Vasco en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva y, en particular, en aquellas funciones de cooperación y asesoramiento que la Ley 14/1998 atribuye directamente a las federaciones.

m) Elaborar sus estatutos y reglamentos deportivos.

n) Promover y, en la medida de lo posible, garantizar la igualdad de mujeres y hombres en la práctica de su modalidad deportiva en su ámbito territorial.

o) Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora de la práctica de su modalidad deportiva.

*Artículo 7.*

La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting desarrollará sus funciones en coordinación con la Federación Vasca de de Pesca y Casting y, en su caso, con las otras Federaciones territoriales integradas en la vasca.

La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting colaborará con la Diputación Foral de Gipuzkoa y podrá suscribir con la misma convenios de colaboración al objeto de determinar los objetivos, programas deportivos, presupuestos y demás aspectos directamente relacionados con las funciones públicas delegadas. Tales convenios tendrán naturaleza jurídico-administrativa. Igualmente la Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting podrá suscribir con la Diputación Foral de Gipuzkoa contratos-programas en los que se incluirán, como mínimo, las previsiones de financiación de aquellas, los objetivos concretos o cuantificables a alcanzar así como los mecanismos para evaluación y auditoría de dichos objetivos.

*Artículo 8.*

En el seno de la Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting no se permitirá discriminación alguna por razón de raza, sexo, religión, opiniones y creencias, o cualquier otra circunstancia personal o social.

## II. IZENBURUA

## FEDERAZIOKO KIDE EGITEA. LIZENTZIAK

*9. artikulua.*

1. Federazio lizentzia agiri pertsonala eta besterenezina da, bere titularrari, pertsona fisikoa edo juridikoa izan, Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioko kide izaera ematen dio, eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitzen du; betiere, lehiaketa bakoitzean diren arauei jarraituz.

2. Federazio lizentzia bakarra izango da EAE osoan, eta, horren bidez, titularra kirol modalitate bateko bai Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioari bai Euskadiko Federazioari atxikita egongo da.

3. Pertsona fisikoak eta juridikoak kirol federazioetako kide egiteko bidea dagokien lizentzia ematea izango da.

4. Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak eta Euskadiko Federazioak, adostasunez, aisialdiko edo zerbitzuetako txartel bakarra sortu ahal izango dute, ofiziala izango ez dena eta borondatezko harpidetza izango duena. Txartel horrek ez du titularra dagokion federazioko kide egingo, eta ofizialak ez diren kirol jarduera batzuetan parte hartzea edo zerbitzu jakin batzuk jasotzea baino ez du ahalbidetuko.

*10. artikulua.*

1. Gipuzkoako Arrantza eta Kasting. Federazioa da bere kirol modalitateko federazio-lizentziak izapidetzeko eskumena duen erakunde bakarra.

2. Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak borondatezko kuota gehigarria jaso ahal izango du federatuengandik, federazio horren zerbitzuak eta jarduerak finantzatzeko.

3. Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak kitatuko du, Euskal Federazioari emanez, lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia, Batzar Orokorrak onesten dituen terminoetan, eta 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 24.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

*11. artikulua.*

Euskadiko Federazioko Batzar Nagusiak onartuko ditu lizentzien formatua eta edukia, eta lizentziotan, halabeharrez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira. Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioak federazio-lizentzien eskakizunen eta ondorioen berri emango die federatu nahi duten horiei, eta federatu egiteko beharrezkoak diren agiriak eta datuak jasoko ditu.

*12. artikulua.*

Federazio lizentziek urtebeteko iraupena izango dute, urte naturalarekin bat etorriz, Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioak bestelakoa xedatzen duenean salbu.

## III. IZENBURUA

## GOBERNU, ADMINISTRAZIO ETA ORDEZKARITZAKO ORGANOAK

*13. artikulua.*

Gobernu, administrazio eta ordezkaritzako organo hauek egongo dira Gipuzkoako Arrantza eta Kasting. Federazioan:

a) Gobernu organo bat, Batzar Nagusia izenekoa.

b) Administrazio organo kolegiatu bat, Zuzendaritza Batzordea izenekoa.

c) Ordezkaritza organo bat, zeinaren titularra Federazioko lehendakaria izango baita.

## TÍTULO II

## INTEGRACIÓN FEDERATIVA. LICENCIAS

*Artículo 9.*

1. La licencia federativa es el documento de carácter personal e intransferible que otorga a su titular, persona física o jurídica, la condición de miembro de La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting y le habilita para participar en sus competiciones oficiales, siempre con arreglo a las reglas que en cada caso rijan las mismas.

2. La licencia federativa será única en todo el País Vasco y supondrá la doble adscripción de su titular a Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting y a la Federación Vasca.

3. La integración simultánea en ambas federaciones se produce mediante la obtención de la correspondiente licencia.

4. La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting podrá crear, de común acuerdo con la Federación Vasca, una tarjeta recreativa o de servicios, de carácter no oficial y de suscripción voluntaria, que no conllevará el derecho a participar en competición oficial alguna y que no supondrá la integración en esta Federación. Tal tarjeta sólo dará lugar a la participación en determinadas actividades deportivas no oficiales o a la obtención de determinados servicios.

*Artículo 10.*

1. La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting es la única entidad competente para tramitar las licencias federativas de su modalidad deportiva.

2. La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting podrá percibir de sus federados y federadas una cuota adicional de carácter voluntario para la financiación de determinados servicios y actividades.

3. La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting liquidará, entregando a la Federación Vasca, el importe neto de cada licencia en los términos que apruebe la Asamblea General y de acuerdo con lo establecido en el artículo 24.5 del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

*Artículo 11.*

El formato y contenido de las licencias serán los aprobados por la Asamblea General de la Federación Vasca y en dichas licencias deberán emplearse necesariamente las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. La Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting informará a quienes deseen federarse sobre los requisitos y efectos de las licencias federativas y recogerá los documentos y datos necesarios para la afiliación federativa.

*Artículo 12.*

Las licencias serán de duración anual, coincidente con el año natural. Salvo disposición distinta efectuada por la Federación Vasca de Pesca y Casting.

## TÍTULO III

## ÓRGANOS DE GOBIERNO, ADMINISTRACIÓN Y REPRESENTACIÓN

*Artículo 13.*

En la Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting existirán los siguientes órganos de gobierno, administración y representación:

a) Un órgano de gobierno denominado Asamblea General.

b) Un órgano de administración colegiado denominado Junta Directiva.

c) Un órgano de representación cuyo titular será el Presidente o Presidenta de la Federación.

## I. KAPITULUA. BATZAR NAGUSIA

*14. artikulua.*

Batzar Nagusia Federazioko gobernu organo gorena da, eta bere gain izango ditu eginkizun hauek, gutxienez:

a) Lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzea.

b) Federazioaren kontuak eta aurrekontuak onartzea.

c) Estatutuak eta estatutuen aldaketak onestea.

d) Zentsura-mozioa onestea.

e) Lehiaketa egutegi ofiziala onartzea.

f) Federazioaren jardun plana onartzea.

g) Federazioaren araudiak eta horien aldaketak onartzea.

h) Ondasun higiezinak erabiltzea, saltzea eta kargatzea, maileguak hitzartzea, banketxe edo aurrezki kutxetako abalak eskatzea, eta zorraren edo ondarearen zati alikuotaren tituluak jaulkitzea, estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.

i) Federazioa desegitea erabakitzea.

j) Duten garrantzia dela-eta Batzar Nagusiaren onespena behar duten erabaki horiek guztiak hartzea.

*15. artikulua.*

1. Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioko Batzar Nagusia lau urtez behin hautatuko da bozketa libre, zuzeneko, berdin eta isilpekoaren bidez.

2. Hauteskundeak beti izango dira udako joko olinpikoak ospatzen diren urteekin bat eginda.

3. Salbuespenez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren berariazko administrazio-baimena eskuratu ondoren, hauteskunde-prozesua atzeratu edo aurreratu egin ahal izango da, aurreikusitako datatan ezinezkoa gertatzen denean.

*16. artikulua.*

1.Batzar Nagusia kluben estamentuen ordezkariek, kirol elkarteek, kirolariek, teknikariek eta epaileek osatuko dute, ondorengo proportzio honetan:

a) Klub eta kirol taldeen estamentuak batzarkide guztien %70eko ordezkaritza edukiko du.

b) Kirolarien estamentuak batzarkide guztien %20eko ordezkaritza edukiko du.

c) Teknikarien eta epaileen estamenduak, biak elkarrekin batzarkide guztien %10eko ordezkaritza edukiko dute.

2. Batzar Nagusiko kideen kopuru zehatza hauteskunde ororen aurretik zehaztuko du Hauteskunde Batzordeak, hauteskundeetarako dagoen errolda kontuan hartuta eta, dagokionean, Hauteskunde Araudiak ezarritako irizpideen arabera.

3. Batzar Nagusiko kideak gehienez ere 100 izango dira.

*17. artikulua.*

1. Klub eta taldeen estamentuak Batzar Nagusian edukiko dituen ordezkariek baldintza hauek beteko dituzte:: Batetik, EAEko Kirol Erakundeen Erroldan izen emanda egotea eta Gipuzkoako Arrantza eta Kasting Federazioko kide izatea; bestetik, hauteskunde garaian nahiz aurreko denboraldian gutxienez 20 lizentzia izatea izapidetuta; eta, azkenik, hauteskunde garaian nahiz aurreko denboraldian kirol jarduera nabarmena eduki izana. Kirol jarduera nabarmena zer den zehazteko irizpideak arauz ezarriko dira.

## CAPÍTULO I. ASAMBLEA GENERAL

*Artículo 14.*

La Asamblea General es el máximo órgano de gobierno de la Federación y tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones:

a) Elegir Presidente o Presidenta.

b) Aprobar las cuentas y presupuestos de la Federación.

c) Aprobar los estatutos y sus modificaciones.

d) Aprobar la moción de censura.

e) Aprobar el calendario de competiciones oficiales.

f) Aprobar el plan de actuación de la Federación.

g) Aprobar los reglamentos federativos y sus modificaciones.

h) Disponer, enajenar y gravar bienes inmuebles, concertar préstamos y emitir títulos de deuda o de parte alícuota patrimonial, conforme a lo establecido en los presentes estatutos.

i) Acordar la disolución de la Federación.

j) Adoptar todas aquellas otras decisiones que, por su trascendencia, precisen la aprobación de la Asamblea General.

*Artículo 15.*

1. La Asamblea General de la Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting será elegida cada cuatro años mediante sufragio libre, directo, igual y secreto.

2. En todo caso, las elecciones se realizarán coincidiendo con los años de celebración de los juegos olímpicos de verano.

3. Excepcionalmente, y previa autorización administrativa expresa de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el inicio del proceso electoral podrá retrasarse o adelantarse cuando en las fechas de inicio previstas no resulte posible.

*Artículo 16.*

1. La Asamblea General estará integrada por los representantes de los estamentos de clubes y agrupaciones deportivas, deportistas, técnicas y técnicos, y juezas y jueces en la siguiente proporción:

a) Una representación para el estamento de clubes y agrupaciones deportivas del 70% del total de miembros de la Asamblea.

b) Una representación para el estamento de deportistas del 20% del total de miembros de la Asamblea.

c) Una representación para los estamentos de técnicos y técnicas, de jueces y juezas del 10% de los miembros de la Asamblea.

2. La cifra exacta de miembros de la Asamblea General se determinará, antes de cada elección, por la Junta Electoral, a la vista del censo electoral existente y de acuerdo con los criterios que, en su caso, establezca el Reglamento Electoral.

3. El número máximo de miembros de la Asamblea será de 100.

*Artículo 17.*

1. Las y los representantes del estamento de clubes y agrupaciones deportivas serán los y las que, figurando inscritas en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco y adscritas a la Federación Guipuzcoana de Pesca y Casting, tengan al menos tramitadas veinte (20) licencias correspondientes a deportistas durante la temporada de celebración de elecciones y que la hayan tenido en la temporada anterior y, además, hayan realizado actividad deportiva significativa durante la temporada de celebración de elecciones y que la hayan tenido en la temporada anterior. Reglamentariamente se establecerán los criterios para determinar qué se entiende por actividad deportiva significativa.

Batzar Nagusiak, lehen aipatu eskakizunak betetzen dituen kirol talde edo elkarte bakoitzeko gutxienez ordezkari bat egotea bermatuko da.

Nolanahi ere, Batzar Nagusian lehen aipatu eskakizunak betetzen dituen kirol talde edo elkarte bakoitzeko gutxienez ordezkari bat egotea bermatuko da.

2. Kirol talde edo elkarte bakoitzak igorri beharreko botoa haztatu egingo da, dituen pertsona eta/edo talde federatuen kopuruaren arabera. Elkarte bakoitzak igorri beharreko boto kopuruaren eskala, izan dezakeen arauzko garapenaren kaltetan izan gabe, ondorengo hau izango da:

Elkarte bakoitzak boto bana izango du.

*18. artikulua.*

1. Kirolarien estamentuak Batzar Nagusian edukiko dituen ordezkariak kirolariek hautatuko dituzte hemezortzi urtetik gorako kirolarien artetik, horiek hauteskundeak egiten diren urtean nahiz aurrekoan lizentzia indarrean izan dutenean. Ordezkaritza hori hamasei urtetik gora izanik lehen aipatu baldintzak betetzen dituzten kirolariek hautatuko dute.

2. Teknikari eta epaileen estamentuek Batzar Nagusian edukiko dituzten ordezkariak hauteskundeak egiten diren urtean nahiz aurreko urtean lizentzia –lizentzia edozein mailatakoa izanik ere– indarrean izan dutenek hautatuko dituzte beren artetik.

3. Hautespen aldian dauden bitartean hutsuneren bat gertatuko balitz Batzar Nagusiko kideen artean, Batzar Nagusiko azken hauteskundeetan estamentu bakoitzeko ordezkoen zerrendan buru egiten zuten pertsonek edo erakundeek beteko lukete hura, Hauteskunde Araudian helburu horrekin ezarriko den jardunbidearen arabera.

*19. artikulua.*

1. Batzar Nagusiak ohiko eta aparteko batzarraldiak egingo ditu.

2. Urtean gutxienez ohiko batzarraldi bat egingo da, urteko lehenengo sei hilabeteen barruan, kontuen egoera eta aurrekontua onartzeko. Egutegi ofiziala denboraldia hasi aurretik onartuko da.

3. Bere eskumenekoak diren gainerako gaiak, hurrengo paragrafoan aurreikusitakoak izan ezik, ohiko batzarraldian jorratuko dira baita ere.

4. Batzar Nagusia aparteko batzarraldian bilduko da ondorengo gai hauetarako:

a) Hauteskundeak egitea.

b) Zentsura mozioa.

c) Estatutuak onartzea edo aldatzea.

d) Federazioa desegitea.

e) Araudiak onartzea edo aldatzea.

*20. artikulua.*

1. Ohiko nahiz aparteko Batzar Nagusirako deia egitea Federazioko lehendakariari dagokio ofizioz, Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiko kideen %5ak hala eskatuta. Hori egiterik ez balego, edota lehendakariak batzarrerako deia egiteko betebeharra beteko ez balu, Zuzendaritza Batzordeak, gehiengo soilez hartutako erabakiaren bidez, edo Batzarreko kideen %5eko ordezkaritza duen talde batek egin ahal izango lukete deia.

El número mínimo de licencias de deportistas señalado en el párrafo anterior podrá ser modificado por la Asamblea General al aprobar el reglamento electoral.

En todo caso se asegurará la presencia en la Asamblea General de un representante, como mínimo, por cada club o agrupación deportiva que cumpla los requisitos, anteriormente citados.

2. El voto que corresponda emitir a cada club o agrupación será ponderado atendiendo al número de personas y/o equipos federados. La escala del número de votos que corresponde emitir a cada club será, sin perjuicio de su desarrollo reglamentario, la siguiente:

Una sociedad = un voto.

*Artículo 18.*

1. Las y los representantes del estamento de deportistas se elegirán entre deportistas mayores de dieciocho años que tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y que la hayan tenido en vigor también la temporada inmediatamente anterior. Dicha representación será elegida por las y los deportistas mayores de dieciséis años que cumplan las condiciones antes señaladas.

2. Las y los representantes del estamento de técnicos y técnicas y de jueces y juezas se elegirán por y entre quienes tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y la hayan tenido también en la temporada inmediatamente anterior, cualquiera que sea la categoría de la licencia.

3. Si durante el período para el que resultaron elegidos, se produjera alguna vacante entre los miembros de la Asamblea General, se cubrirán por la persona o entidad que encabece la lista de suplentes de cada estamento en las últimas elecciones a la Asamblea General, de acuerdo con el procedimiento que establezca al efecto el Reglamento Electoral.

*Artículo 19.*

1. La Asamblea General se reúne en sesiones ordinarias y extraordinarias.

2. La Asamblea General se reunirá en sesión ordinaria al menos una vez al año, dentro del primer semestre del año para la aprobación del estado de cuentas y presupuesto. El calendario oficial deberá ser aprobado antes del inicio de la temporada.

3. Los demás asuntos de su competencia, salvo los previstos en el párrafo siguiente, se tratarán también en Asamblea ordinaria.

4. La Asamblea General se reunirá en sesión extraordinaria para tratar los siguientes asuntos:

a) Celebración de elecciones.

b) Moción de censura.

c) Aprobación o modificación de los Estatutos.

d) Disolución de la Federación.

e) Aprobación o modificación de los Reglamentos.

*Artículo 20.*

1. La convocatoria de las Asambleas generales ordinarias o extraordinarias corresponde al Presidente o Presidenta de la Federación de oficio, a petición de la Junta Directiva o del 5% de los componentes de la Asamblea General. Si ello no fuera posible, o el Presidente o Presidenta no cumpliera con su obligación de convocar la Asamblea, la Junta Directiva, por acuerdo adoptado por mayoría simple, o un colectivo de miembros de la Asamblea que represente al 5% de sus componentes podrán exigir la convocatoria.

2. Lehendakariak gehienez 15 egun naturaleko epean egin beharko du batzarrerako deia, dagokion eskaera egiten denetik kontatzen hasita. Lehendakariak deialdia lehen aipatu epean egingo ez balu, batzarra Zuzendaritza Batzordeak edo, hala dagokionean, eskaera egin duen batzarreko taldeak deitu ahal izango dute.

*21. artikulua.*

Batzar Nagusirako deiaren berri, ohikoa nahiz apartekoa izan, eta gai zerrendaren berri ere, idatziz emango zaie Batzarreko kideei, 15 egun aurretik gutxienez. Idatzizko jakinarazpena baliozkoa izango da faxez, posta elektronikoz edo kasu orotan erregistratzea edo gordetzea ahalbidetzen duen antzeko beste bitarteko baten bidez egiten denean.

*22. artikulua.*

Batzarreko kideek ahalmena dute interesgarritzat jotzen dituzten gaiak gai zerrendan sar ditzan lehendakariari eskatzeko, baldintza hauek betez gero: Eskaera Batzarreko kideen gutxienez %5ek proposatuta izango da, sartu beharreko gaia Federazioaren interes orokorrekoa baldin bada; edota estamentu bateko kideen %5ek proposatuta, sartu beharreko gaiak lehentasunezko interesa baldin badu estamentu horrentzat.Nolanahi ere, Batzar Nagusiko gai zerrendan sartzeko eskaera bost egun natural lehenago egin beharko da gutxienez.

*23. artikulua.*

1. Batzar Nagusiak baliozko eraketa izango du lehen deialdian, baldin eta kideen erdiak eta bat gehiago agertzen badira. Bigarren deialdian, ordea, berdin dio zenbat kide agertzen diren.

2. Zuzendaritza Batzordeko kide izanik Batzar Nagusiko kide ez direnak batzarrera agertu ahal izango dira, hitza bai baina botorik gabe. Kide horiek ez dira kontatuko quoruma zenbatzerakoan.

*24. artikulua.*

Botoak eskuordetzerik ez da onartuko Batzar Nagusiaren barruan.

## II. KAPITULUA. ZUZENDARITZA BATZORDEA

*25. artikulua.*

Zuzendaritza Batzordea Federazioko administrazio organoa da eta Federazioko gaien administrazio eta ekonomi kudeaketaren eginkizunak betetzen ditu. Hain zuzen ere, Batzar Nagusiak emandako jarraibideen arabera bete behar ditu eginkizun horiek.

*26. artikulua.*

1. Zuzendaritza Batzordea bakoitia izango den kide-kopuruaz osatuko da, eta honela egongo da eratuta:

a) Lehendakari bat, aldi berean Federazioko lehendakari izango dena.

b) Lehendakariorde bat, lehendakariaren eginkizunak bereganatuko dituena hura aldi baterako kanpoan baldin bada, edota kargua uzten baldin badu.

c) Gehienez ere 15 kide.

Zuzendaritza Batzordeak, hainera, Diruzain bat izango du eta Federazioko Idazkariaren laguntza izango du. Horiek biek hitza bai baina botorik ez dute izango.

2. Zuzendaritza Batzordeko kargu guztiak ohorezkoak dira, Idazkariarena eta Diruzainarena salbu, horiek ordaindu egin daitezke-eta.

2. El Presidente o Presidenta deberá proceder a la convocatoria a la Asamblea en el plazo máximo de 15 días naturales a partir del día que se formule la correspondiente petición. Si el Presidente o Presidenta no procediere a la convocatoria en el plazo antes indicado, tanto la Junta Directiva como, en su caso, los asambleístas peticionarios podrán proceder a su convocatoria.

*Artículo 21.*

La convocatoria de la Asamblea General, tanto ordinaria como extraordinaria, junto con el orden del día, será comunicada a los miembros de la Asamblea, por escrito, con una antelación mínima de 15 días. La comunicación escrita será válida cuando se efectúe por fax, correo electrónico u otro medio análogo que permita, en todo caso, poder registrarse o guardarse.

*Artículo 22.*

Los miembros de la Asamblea podrán solicitar del Presidente o Presidenta la inclusión en el orden del día de aquellos asuntos que consideren de interés, siempre que la solicitud se haga a propuesta, como mínimo, de un 5% de los miembros de la Asamblea, si el punto a incluir es de interés general de la Federación; o de un 5% de los miembros de uno de los estamentos, si el punto a incluir es de preferente interés para el estamento de que se trate. En todo caso la petición deberá formularse con una antelación de al menos cinco días naturales anteriores a la fecha de convocatoria de la Asamblea.

*Artículo 23.*

1. La Asamblea General quedará válidamente constituida en primera convocatoria cuando concurra la mitad más uno de sus miembros. En segunda convocatoria bastará con la concurrencia de cualquier número de asistentes.

2. Todos los miembros de la Junta Directiva que no lo sean de la Asamblea General podrán asistir a ésta con voz pero sin voto. Su asistencia no podrá ser computada a efectos de quórum.

*Artículo 24.*

No se admitirá la delegación de voto en el seno de la Asamblea General.

## CAPÍTULO II. JUNTA DIRECTIVA

*Artículo 25.*

La Junta Directiva es el órgano de administración de la Federación y ejerce las funciones de gestión administrativa y económica de los asuntos federativos que deberá desarrollar conforme a las directrices de la Asamblea General.

*Artículo 26.*

1. La Junta Directiva, que contará con un número impar de miembros, estará compuesta por:

a) Un Presidente o Presidenta, que lo será asimismo de la Federación.

b) Un Vicepresidente o Vicepresidenta, que asumirá las funciones del Presidente o Presidenta en caso de ausencia temporal o cese de éste.

c) Un máximo de 15 vocales.

La Junta Directiva contará además con un Tesorero y estará asistida por el Secretario de la Federación, ambos con voz pero sin voto.

2. Todos los cargos de la Junta Directiva son honoríficos, excepto el del Secretario y el del Tesorero que podrán ser retribuidos.

*27. artikulua.*

1. Zuzendaritza Batzordeko kideak lehendakariak hautatuko ditu, lehendakariak kargua hartu eta hurrengo hogeita hamar eguneko epearen barruan.

2. Zuzendaritza Batzordeko kideak, Lehendakaria izan ezik, honi kargu horretarako xedatutakoa baitzaio aplikagarri, berrautatuak izan daitezke, baina gehienez ere 3 agintaldi egongo dira jarraian, Zuzendaritza Batzordean izan dituzten zuzendaritza-kargu guztiak kontatuz, lehendakariarena barne.

*28. artikulua.*

1. Federazioko lehendakariaren gain dago edo, hori falta denean, lehendakariordearen gain, edo bestela, kideen %25aren gain, Zuzendaritza Batzordearen bileretarako deiak egitea.

2. Deiarekin batera eguneko gai zerrenda joan beharko da: Hitz egin beharreko gaien berri emango du, eta gaiei buruzko agiriak gehituko zaizkio.

3. Bileraren berri idatziz emango zaie batzordekideei, bi egun lehenago gutxienez, non eta presa larria ez dagoen, eta orduan ere behar bezala arrazoituta.

4. Hala eta guztiz ere, bilera baliotasunez eratu dela ulertuko da, nahiz eta aldez aurretik dei egin ez, baldin eta kide guztiak agertzen badira eta denek aho batez hala erabakitzen badute.

5. Zuzendaritza Batzordeko kideek berariaz hala onesten dutenean, batzordea baliotasunez deitu eta egin dela ulertuko da bere erabakiak posta elektroniko, fax edo Batzordeko kideen adierazpenak nahiz horien botoak jasotzea ahalbidetzen duen beste edozein bitarteko tekniko erabiliz hartzen direnean. Kasu horretan, aktarekin batera esku-hartzeen eta botoen zurigarriak gorde beharko dira.

*29. artikulua.*

1. Zuzendaritza Batzordea baliotasunez eratuko da lehen deialdian kideen erdiak eta bat gehiago agertzen badira, eta bigarren deialdian gutxienez kideen %25 agertzen badira, baina Federazioko lehendakaria edo lehendakariordea beti.

2. Federazioko lehendakaria, edo hura ez badago, lehendakariordea, mahaiburu egongo da Zuzendaritza Batzordeko bileretan, eta berak zuzendu eta koordinatuko du Batzordearen jarduna. Bat edo beste egongo ez balitz, adin nagusieneko pertsona izango da mahaiburu.

*30. artikulua.*

1. Zuzendaritza Batzordeak bere agintaldia utziko du arrazoi hauetakoren bat baldin badago:

a) Lehendakariari edo honi eta Zuzendaritza Batzordeari batera egindako zentsura-mozioa onestea.

b) Administratiboki edo judizialki aitortutako gaitasungabetzea.

c) Lehendakariak dimititzea.

d) Kideen erdiak baino gehiagok dimititzea edo hiltzea, Lehendakariak dimititu duten edo hil diren kideak ordeztu ez dituenean.

*Artículo 27.*

1. Los miembros de la Junta Directiva serán elegidos por el Presidente o Presidenta dentro de los treinta días siguientes a haber accedido éste o ésta al cargo.

2. Los miembros de la Junta Directiva, salvo el Presidente o Presidenta al que resulta de aplicación lo dispuesto para este cargo, podrán ser reelegidos, pero el límite temporal de mandatos seguidos será de 3 mandatos, computándose todos los cargos directivos que hayan ostentado en la Junta Directiva, incluido, en su caso, el de Presidente o Presidenta.

*Artículo 28.*

1. Corresponderá al Presidente o Presidenta de la Federación o, en su defecto, al Vicepresidente o Vicepresidenta o al 25% de los miembros de la Junta Directiva, la convocatoria de las sesiones de la misma.

2. La convocatoria se acompañará del orden del día donde figuren los asuntos a tratar, y de la documentación relativa a los mismos.

3. Será notificada por escrito a los miembros de la Junta con al menos dos días de antelación, salvo supuestos de urgencia debidamente justificados.

4. No obstante, aunque no haya convocatoria, se entenderá válidamente constituida si concurren todos sus miembros y así lo acuerdan por unanimidad.

5. Siempre que así lo acepten expresamente sus miembros la Junta Directiva se entenderá válidamente convocada y celebrada si adopta sus acuerdos a través de correo electrónico, fax o cualquier otro medio técnico que permita recoger las manifestaciones de los miembros de la Junta, así como su voto para la adopción de los correspondientes acuerdos. En este caso, junto con el acta, deberán conservarse los justificantes de las intervenciones y votos.

*Artículo 29.*

1. La Junta Directiva quedará válidamente constituida cuando concurran en primera convocatoria la mitad más uno de sus miembros, y en segunda convocatoria cuando concurran al menos un 25% de sus miembros, y, en todo caso, el Presidente o Presidenta de la Federación o el Vicepresidente o Vicepresidenta.

2. El Presidente o Presidenta de la Federación o, en su ausencia, el Vicepresidente o Vicepresidenta, presidirá las sesiones de la Junta Directiva y dirigirá y coordinará su actuación. En caso de ausencia de uno u otro u otra, la presidirá la persona de mayor edad.

*Artículo 30.*

1. La Junta Directiva cesará por alguna de las siguientes causas:

a) Por aprobación de moción de censura formulada al Presidente o Presidenta, o a este o esta y conjuntamente a la Junta Directiva.

b) Por inhabilitación declarada administrativa o judicialmente.

c) Por dimisión del Presidente o Presidenta.

d) Por dimisión o fallecimiento de más de la mitad de sus miembros, en caso de que el Presidente o la Presidenta no haya procedido a la sustitución de los dimitidos o fallecidos.

2. Zuzendaritza Batzordeko kideek ondorengo arrazoi hauetakoren batengatik utziko dute kargua:

a) Dimititzea.

b) Hiltzea.

c) Lehendakariak kargua uztea.

d) Judizialki aitortutako gaitasungabetzea.

e) Batzordearen hiru bilera edo gehiagotara, jarraian edo tartekatuta, ez agertzea, kirol denboraldi berean, arrazoitutako kausarik gabe.

f) Lehendakariak kargua utzaraztea.

3. Lehendakariak, Zuzendaritza Batzordeko kide batek edo gehiagok kargua utziko balute, hil egingo balira edo gaitasungabetuko balira, beste pertsona batzuk izendatu ahal izango ditu hutsik geratu diren karguak betetzeko.

*31. artikulua.*

1. Batzar Nagusiak Lehendakariaren edo Zuzendaritza Batzordearen erantzukizuna eska dezake zentsura mozio baten bitartez, baina mozio hori Batzar Nagusiko kideen gehiengo osoak babestu beharko du, berariaz deitutako batzarraldi batean.

2. Zentsura mozioa onartzeak berarekin ekarriko du Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek beren karguak uztea, Federazioko lehendakariak barne.

*32. artikulua.*

1. Zuzendaritza Batzordeak edo lehendakariak bere agintea uzten duenean jardunean jarraituko dute, eta Hauteskunde Batzordearen bilerarako deia egingo dute, hilabetean gehienez ere, hauteskundeei ekin eta bere Zuzendaritza Batzordea izendatuko duen lehendakaria hautatzeko.

2. Hori egiterik ez balego, Federazioko Batzar Nagusiko kideen edozein taldek dei diezaioke Hauteskunde Batzordeari, kide guztien gutxienez %5eko ordezkaritza baldin badauka, behintzat.

*33. artikulua.*

Federazioko idazkariak bere gain edukiko ditu, gutxienez, eginkizun hauek:

a) Federazioko Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak egiten dituzten bileren aktak egitea.

b) Federazioko liburuez eta gainerako agiriez arduratzea, kontabilitatekoez izan ezik.

c) Liburu horien edukiari buruz eman beharreko ziurtagiri guztiak ematea.

*34. artikulua.*

Federazioko diruzainak bere gain edukiko ditu, gutxienez, eginkizun hauek:

a) Federazioaren kontuak eramatea eta ekonomi eragiketak egitea.

b) Federazioaren kontabilitate liburuak zaintzea eta eramatea.

c) Prestatu beharreko kontabilitate agiri guztiak prestatzea, bereziki urteko aurrekontuaren zirriborroa eta ekitaldi bakoitzeko balantzea, gero Batzar Nagusiak onar ditzan.

2. Los miembros de la Junta Directiva cesarán por alguna de las siguientes causas:

a) Por dimisión.

b) Por fallecimiento.

c) Por cese del Presidente o Presidenta.

d) Por incapacitación declarada judicialmente.

e) Por inasistencia a tres o más sesiones de la Junta consecutivas o alternas durante una temporada deportiva, salvo causa mayor justificada.

f) Por ser cesados/as por el Presidente o Presidenta.

3. El Presidente o Presidenta podrá, en caso de cese, dimisión voluntaria, fallecimiento o incapacitación de uno o más miembros de la Junta Directiva, nombrar a otras personas para ocupar las vacantes.

*Artículo 31.*

1. La Asamblea General podrá exigir la responsabilidad del Presidente o Presidenta y la de la Junta Directiva mediante la adopción de una moción de censura que deberá ser respaldada por la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea General en una sesión convocada al efecto.

2. La aprobación de la moción de censura causará el cese de todos los miembros de la Junta Directiva, incluido el Presidente o Presidenta de la Federación.

*Artículo 32.*

